



EUSKARA ZERBITZUA

ARANGUREN IBARREKO UDALA

28.zk. 2018ko otsaila

IBARREKO IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA


Nafarroako Gobernuak jasotako azkeneko datu soziolinguistiko adierazgarriak 2011koak ziren. Garai hartatik eta 2017ra arte, Ibarreko biztanle kopurua ia % 35 hazi da. Biztanleriaren hazkunde horrek Ibarreko errealitate soziolinguistikoan nola eragin duen jakiteko asmoz, Udalak ikerketa soziolinguistikoak egin ditu. Landa lana 2016ko abenduan burutu zen. Jarraian Daniel Gonzalezekin hitz egingo dugu ikerketa horren datuei buruz, Udaleko euskara zinegotzi berriarekin.

ZEIN DATU AZPIMARRATUKO ZENUKE IKERKETAK JAURTI DITUENETATIK?

Nafarroako Gobernuak 2011an egindako ikerketan Ibarreko **elebidunak** biztanleriaren % 9,79 ziren bitartean **azken ikerketaren** arabera beren burua elebidun aitortzen dutenak **% 16,1** direla azpimarratuko nuke. Horren arabera, Ibarreko elebidun proportzioa hazten ari da. Nire ustez garrantzitsua da ere Nafarroan eta ikerketa egin duten beste udalerrietan bezala, Ibarrean ere **biztanleen adina behera doan heinean elebidunen portzentajea handiago dela**. 66 eta urte gehiagoko elebidunen portzentajea % 5,4koa den bitartean, 16 eta 30 urte bitarteko elebidunak % 35,1 dira. Azkenik, eta batez ere orain 3 urteko haurren aurre-matrikulazio epea hurbiltzen ari den honetan, azpimarratuko nukeena hauxe izango litzateke: **Ibarreko 30 urte-tik beherako euskara ikasi duten pertsonen % 88,12k D ereduan edo euskarazko murgiltze ereduan lortu dutela**. Uste dut garrantzitsua dela onartzea, bere 40 urteko esperientziari eskerrak, eredu hau dela Nafarroako bi hizkuntza berekiak, euskara zein gaztelania, eta noski ingelesa izan daitekeen atzerriko beste hizkuntza bat ikastea bermatzen duen bakarra.

ZER ESANGO ZENUKE IBARREKO EUSKARAREN ERABILERAZ?

Pozik gaude ere Aranguren Ibarreko kaleetan euskararen erabilera egin den ikerketaren emaitzekin. Ikerketa horren arabera, **Ibarreko kaleko euskararen erabilera % 5,9koa da**, Iru-



ñerrian %2,9koa den bitartean. Datu hori **oso ona dela** uste dugu. Bestalde, ikerketa soziolinguistikoaren arabera **elebidunen % 44,3ak bere seme-alabekin** bakarrik daudenean **beti gaztelania edo gaztelania euskara baino gehiago** erabiltzen duela aitortzen du. Nik ordea, nire esperientzia pertsonala dela eta, badaikit haur batek testuinguruan nagusia ez den hizkuntza bat ongi ikasteko faktoreetako bat hizkuntza hori ezagutzen duen aita edo amak berarekin beti hizkuntza hori erabiltzea dela. Nire kasuan, nire amaren hizkuntza alemana da eta bai nirekin eta baita nire anaiarekin ere beti erabili du hizkuntza hori. Modu horretara alemana ikasteaz gainera, beste hizkuntzak ikasteko erraztasuna ere lortu dugu, nire kasuan ingelesa, frantsesa eta orain euskara ikastea erraztu didalarik.

ETA EUSKARAREKIKO JARRERARI BURUZ?

Inkesta **erantzun dutenen % 55,7ak**, neurri handiagoan edo txikiagoan baina, **beren seme-alabek euskara ikasteko interesa** adierazi dute. Nire ustez horrek euskararekiko jarrera baikorra adierazten du.

Azkenik, eta argi izanik hobetzen jarraitu behar dela, uste dut garrantzitsua dela azpimarratzea **Udaleko Euskara Zerbitzua** ezagutzen dutela adierazi dutenetatik **% 90,7ak ongi edo oso ongi baloratzen dutela**.

HAURRAK AURREMATRIKULATZEKO EPEA

Otsailaren 1etik 7ra San Pedro I.P.-an eta martxoan zehar Ttipi Ttapa Haur Eskolan

era.eus
Dereduko haurren familientzako webgunea

KULTUR JARDUERAK



Ipuin-kontalariak, antzerki eta txontxongiloak haur eta familientzat, Bertso Bazkaria, Irakurketa Taldea, irakurketa sustatzeko programa...

EUSKARALDIA II egun euskaraz

Aurre-matrikulaziorako garaia



Otsailaren 1etik 7ra irekita egonen da eskolako aurre-matrikulazioa 2015. urtean jaio eta aurten 3 urte betetzen dituztenentzat.

➤ Aukera ezberdinen artean, San Pedro I.P.-ko **D eredua** da murgiltze eredu goiztiararen bidez Nafarroako bertako bi hizkuntzen, **gaztelera eta euskara**, jabekuntza **bermatzen** duena; baita **atzerriko hizkuntza** baten oinarri sendoa ere.

➤ San Pedro I.P.-ko metodologiari buruzko informazio gehiago nahi duena **ikastetxearen ate irekietara** joan daiteke.

📅 Urtarrilaren 29an, astelehena.
🕒 17:00etan.

Bide batez, **martxoan zehar 0-3 urte bitarteko haurrentzako** Ttipi-Ttapa Haur Eskolako aurre-matrikulazio epea irekiko dela ere jakinarazten dugu. Bertan ere bada euskarazko lerro baten eskaintza.

Antzerkia haur eta familientzat



“Martinaren Parke Fantastikoa” antzezlanaren Producciones Maestras taldearen eskutik.

📅 Otsailak 4, igandea.
🕒 12:00etan.
📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioan.
🕒 Iraupena: 55 minutu.
🎫 3 €

Txontxongiloak haur eta familientzat

“Cletaren ametsa” Gus Marionetasen eskutik.



📅 Otsailak 18, igandea.
🕒 17:30ean.
📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioan.
🕒 Iraupena: 55 minutu.
🎫 Sarrera: 3 €

Ipuinkontalaria

“Japoniarrak” Birjine Albirarekin



📅 Otsailak 14, asteazkena.
🕒 18:00etan.
📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioan.

Doako jarduerak, 4 urtetik gorakoentzat.

Ipuinkontalaria

“Super botereak!” Ventura Ruizen eskutik



📅 Martxoak 7, asteazkena.
🕒 18:00etan.
📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioan.

Doako jarduerak, 4 urtetik gorakoentzat.

era.eus



Zure seme-alabei etorkizunean aukera gehiago emateko euskarazko hezkuntza aukeratu baduzu edo aukeratzen baduzu eta zure egunerokoa zalantzaren bat sortzen baldin bazaizu, Nafarroako 28 euskara zerbitzuek, horien artean Aranguren Ibarrekoak, martxan jarri duten plataforma hau kontsultatu dezakezu. Webgune honek **euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza eta baliabideak eskaintzea eta seme-alaben ikas-prozesua osatzea du helburu.**

Honakoak izango dira **webgunearen atal garrantzitsuenak**:

- Gurasoen ohiko zalantzak argitzeko informazioa ematea.
- Interneten haurrentzat prestatutako edukiaren bilduma egitea, esaterako ipuinak, jolasak, musika, aplikazioak...
- 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat eskolaz kanpoko jardueren bilduma (kirola, ikastaroak, ludotekak...)
- Haurrentzako euskarazko eskaintzaren berri emanen duen agenda eskualdeko antolatua.



Aurkezpena: Euskaraldia Aranguren Ibarrean



Euskaraldia gero eta herri gehiagotan martxan jartzen ari den **aktibazio ekimena** da. **Euskarak 365 egun** dinamikaren barnean **2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra** egingo den **11 egun euskaraz** ekimena prestatzen hasiak dira horietako batzorde asko. Gustatuko litzaizuke ekimen honen nondik norakoak ezagutzeko?

Aranguren Ibarrean ekimen hau nola abiarazi daitekeen erabakitzeke ekarpenak egiteko prest al zaude? Hala bada, etor zaitez egitasmoaren aurkezpena eta abiatze saioa izango dena.

📅 Otsailak 1, osteguna. 📍 Erabilera anitzeko gelan, San Pedro plazan.
🕒 19:00

Bertso Bazkaria



Irulegi Euskara Taldeak prestatutako herri bazkari hau **ALAIA MARTIN eta ARKAITZ ESTIBALLES** bertsolariak girotuko dute.

15 euroren truke entsalada, kalderetea, postrea, kafea, kopa, ogia eta edariaz gozatu ahalko dugu eta baita bi aparteko bertsolari hauek girotutako bazkalondoaz ere.

📅 Martxoak 17, larunbata.
🕒 14:30ean.
📍 Labianoko Larraskoa elkartearen.

➔ Txartelak Euskara Zerbitzuan, Kultur Etxean eta Aranetxean **salgai** egonen dira **martxoaren 15era arte**.



Handia Filma (J.B.G.A.)

Zuzendariak: Jon Garaño eta Aitor Arregi.
Iraupena: 114 minutu



📅 Martxoak 16, ostirala.
🕒 20:00etan.
📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioa.
🎫 2,50 €

Filma bukatzean, **JUAN ZAPATER eta BLANCA ORIAK** gidatutako **ZINE FORUMA** egingo da **gaztelaniaz**.

Irakurle Taldea




Irulegi Euskara Taldeak sortutako eta **JON ALONSO idazleak gidaturiko** irakurle talde honen hurrengo saioan, **Angel Lertxundiren “Zoaz infernura laztana”** liburuari buruzko solasaldia egingo dute.

📅 Martxoaren 15, osteguna.
🕒 19:00 📍 Kultur Etxean.

Irakurle Talde honen hurrengo irakurgai eta saioei buruzko informazioa jaso nahi baduzu, bidali mezu bat irulegieuskarataldea@yahoo.es -ra eta idatzi zure izena, zure abizenak eta zure sakelako telefonoaren zenbakia.



Irakurzaletasuna sustatzeko programa: *Irakurri, Gozatu eta Oparitu*



Aurtengoa, egitasmo honen laugarren edizioa izango da Ibarrean, eta **martxoaren 12tik maiatzaren 31ra** egongo da martxan. Euskaltzale elkarte, liburutegi publiko eta liburu dendek elkarlanean antolatutako egitasmo honen helburua irakurzaletasuna sustatzea da.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko:

- 1. Irakurri.** Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, alegia. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango dugu.
- 2. Gozatu.** Liburua irakurri, liburutegira itzuli, eta fitxa erraz bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua eta zer iritzi dugun. Fitxa hori beteta, liburutegian eresketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko.
- 3. Oparitu.** Azken pausua, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari. Liburutegian jasotako eresketa-txekeak, euskarazko beste

edozein libururen **prezioaren %35 ordaintzeko** aukera emango digu.

Gainera, **apirilaren zein maiatzaren bukaeran**, programan parte hartu duten pertsonen artean **30 euroko eresketa txeekean zozketa** egingo da.

Euskararen Astea Ibarrean

Dagoeneko hasiak gara Ibarreko Euskararen Astea antolatzen, edozein proposamen, iradokizun edo ideia baldin baduzu, jarri zaitetz Euskara Zerbitzuarekin harremanetan.



IRULEGI EUSKARA TALDEAREKIN
ELKARLANEAN ANTOLATURIK

📅 Maiatzaren 2tik 5era.

📍 Euskararen Eguna **Labianon**.

Argitalpena



Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Aranguren Ibarreko Udalak argitaratutako «*Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren*» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jarri zaitetz Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. **Doako aleak daude erroldatuentzat.**

Euskaldunen fitxategia

2009an Aranguren Ibarreko Udalak Ibarreko Euskaldunen Fitxategi bat sortzea erabaki zuen. Fitxategi horren helburua hala nahi zuten biztanleei Ibarrean antolatzen diren euskarazko edo euskarari buruzko jarduerak modu eraginkorragoan jakinarazi ahal izatea da. Horrelako **jardueren berri jaso nahi baduzu edo** fitxategian egoteko fitxa bete zenuenetik zure **daturen bat** (e-posta, telefonoa...) **aldatu baduzu, jarri zaitetz udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan.**

👉 Euskara Zerbitzua

Udalaren helburua Ibarreko talde eta norbanakoekin elkarlanean aritzea da. Ibarrean euskaraz edo euskarari buruzko jardueraren bat antolatzeko proposamenik baldin baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan.



Aranguren Ibarreko Udala, 1. pisua. Mutiloa pl/ z/g. Mutiloa



Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00.



948 15 01 93



euskera@aranguren.es